


VILLA GURE BAITA
D MAILA

LA FE PASEALEKUA 39



Ramon Kortazar, 1913.

Deskribapena

Loratagirik badia zuzenean ikusten da, eta Ramon Kortazarrek 1921ean diseinatutako hormigoizko egituraren bidez luzatzen da. Oinplanoa karratua da ia-ia, eta malda handiko estalkiak dauzka, hiru isurkikoak, horma pikoak bolumen handiko aldameneko bizitegi eraikinerantz duela. Beheko solairua, goiko bi solairu eta teilatupeko hirugarren bat dauzka. Fatxadetan aparailu kuxinduaren marrazkia ikusten dugu, eta horren gainean beste bilbadura-marrazki bat abiatzen da, zuraren presentzia handiz balkoi, galeria eta teilatu-hegaletan. Jabaloi bidezko soluzioa ikusten dugu bai horma pikoetako eta txapituletako biseretan eta teilatu-hegaletan, bai erdiko atal irteneko galeria-balkoiko teilatuan ere: pabiloi estalkiko gapirioak hartzen dituzten frontalen euskarria beso bitartez egiten da, zutikoetan, kapitel eran. Goiko balkoiaren gainean teilatutxo hegaldun bat dago, jabaloi gainean, urak errazago atera ahal izatearren. Lau txapitula jakobinok ere parte hartzen dute estalki jokoan.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: 1921eko iparraldeko terrazaren egitura eta garajearen kanpoko bolumena.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: apaindura eta testura emokatuak, harrizko eta zurezko elementuak, estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe. Zilegi da Iparraldeko fatxadan bao bat handitzea, ibilgailuak pasatzeko. Ordenantza orokorren 21.8 artikuluan baimentzen diren jarduketak villako hegoaldeko fatxadarekin kontaktuan baimenduko dira, sestra gainean eta sestrapean, eta, iparraldeko fatxadan, sestrapean baino ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.